

5. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN GAINEKO ARGIBIDEAK

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 134.1.c) artikuluan ezarritako zuzendaritza-eginkizunaren garapenari buruzko prestakuntza-ikastaroaren ezaugarriak garatzen dituen urriaren 17ko **894/2014 Errege Dekretuaren Xedapen Gehigarri Bakarra** betez, masterra edo graduondoko titulua (biak ofizialak) lortu dutenak salbuetsita daude zuzendaritza-eginkizunaren garapenari buruzko prestakuntza-ikastaroa egitetik, zuzendaritza-proiektuari dagokion modulua izan ezik.

Urriaren 17ko **894/2014 Errege Dekretuaren 2.6 artikulua** ezartzen duenez, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa indarrean sartu aurretik emandako ikastetxe publikoen zuzendaritzarako akreditazioak edo gaikuntzak dituztenek, dagokion ziurtagiria eman zenetik zortzi urteko epea igaro bada, zuzendaritza-eginkizuna betetzeari dagozkion **edukiak eguneratzeko ikastaroa gainditu beharko dute.**